

euskara eta feminismoa bidelagun

Azaroko astearteetan mahai-inguruak online

Antolatzaileak



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EMAKUNDE
ORGANISMO EQUAL OPPORTUNITY
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Hizkuntza eta Generoa batordea

Euskarak zabaltzen dituen atek arrazakeriak ixten ditu

Emakume arrazializatuek euskara ikasteko eta mugimendu feministan parte hartzeko orduan dituzten oztopoak salatu dituzte Palmira Dual, Leocadia Bueriberi eta Tarana Karim aktibistek. Emakume ijitoei eta etorkinei integratzea eskatu ordez, arrazakeria instituzionalaren eta sozialaren kontra elkarrekin borrokatzea eta guztion beharrak agenda feministan sartzea aldarrikatu dute.

June Fernández- Pikara Magazine

Palmira Dual irundarra da. Gizarte-bitartekotzan prestatutako aktibista da, eta Sim Romi Gipuzkoaquè Gipuzkoako Emakume Ijitoen elkartean lan egiten du. Haren ama hizkuntza gaztelania da, eta euskara eskolan ikasi zuen txikitari. Ijito herriaren hizkuntza erromania da, baina ijitoek bizi duten jazarpen historikoaren ondorioz galdu da, eta kaloa da Iberiar penintsulan bizirik mantendu den dialektoa, erromaniaren hitzak dituen.

Leocadia Bueriberi Ekuatore Ginean jaioa da, eta Gasteizen bizi da txikitatik. Euskal Herriko Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sareko kidea da, baita Euskal Herriko Mugimendu Antirrazistakoa eta Gasteizko Kolektibo Beltz eta Panafrikanistakoa ere. Haren ama hizkuntzak fanga eta gaztelania dira. Euskal Herrira heltzean, B ereduan matrikulatu zuten, eta han ikasi zuen euskara.

Tarana Karim Azerbaijanen sortu zen. Emakumeen eskubideen alde eta arrazakerien aurka borrokan ari den euskal herritar gisa definitzen du bere burua. Hernialden bizi da. Haren ama hizkuntza azerbaijanera da, eta ikasketak errusiarrez egin zituen. Zuzenbide ikasketak egin zituen, eta migratu baino lehen beste bi hizkuntza ikasi zituen. Euskal Herrira etortzean, gaztelania ikasi zuen, eta, laster, euskaltegian eman zuen izena.

Hirugarren mahai-inguruaren abiapuntua hizlarien biografiak eta ibilbide linguistikoak ezagutzea izan da. Dual eta Bueriberi eskolan egin ziren euskaldun. Horren ondorioz, euskara hezkuntza arloarekin, testuinguru akademiko formal horrekin, lotu dutela onartu dute. "Eskolatik kanpo ez nuen euskaraz ezer jakin nahi!", esan du bigarrenak. Karim, ordea, heldua zelarik heldu zen Euskal Herrira, eta momentu hartan ez zekien bi hizkuntza zeudenik: "Etorkinei ez zaie harrera euskaraz ematen, helduei behintzat ez. Txikiei bai. Erdara ikasi behar izan nuen, gero euskara ikasteko".

Euskaldun estatusa

Hirurak euskal herritarrak direla aldarrikatzen dute, nahiz eta diskurtso arrazistak maiz estatus hori ukatu txuriak ez direnei eta hemen jaio ez direnei. Uste dute euskaldunaren inguruko iruditeria are eta hertsia delako. "Euskara dakien pertsona naiz. Euskalduna izateak, ordea, molde batzuk ditu, ez naiz sartzen eta ez naiz saiatuko sartzen", adierazi du Karimek. Antzeko irakurketa egin du gasteiztarrek: "Nire burua euskaldun gisa ikusten dut, baina besteek ez naute horrela ikusten: euskaldun figura hori pertsona txuri batekin lotzen dute, janzkera jakin bat daramana, elementu kultural jakin batzuk dituen".

Pertsona arrazializatu gehienaren egoera prekarioa kontuan hartuta, zaila da lan eta familia arduren artean euskaltegiara joateko orduak ateratzea, baita matrikula ordaintzeko dirua izatea ere. Ondorioz, "emakume migratuen lehentasunak eta beharrak bestelakoak dira. Migrazioaren doluarekin datoz asko. Etxe batean *interna* gisa lan egiten ari banaiz, jabeek ez badidate kontratua egiten, ezin zait eskatu euskara ikastea", dio Leocadiak. Txikitatik Euskal Herrian bizi bada ere,

indarkeria xenofoboari aurre egin behar dio: etxebizitza aurkitzeko zailtasunak, Atzerritartasun Legearen korapilo burokratikoak, dendetan susmagarri sentitzea eta ezer lapurtu ez duela adierazteko beharra sentitzea... Baldintza eta aukera berdinak izan arte, uste du ezin zaiela pertsona arrazializatuei euskara ikas dezaten exijitu: "Arazo horiek kentzen laguntzen badiguzue, guk euskara poztasun osoz ikasiko dugu".

Testuinguru latz horretan, "kanpotar asko ez dira euskara ikasten saiatzen ere, bizitza erdaraz egiten dute", dio Karimek. "Azterketen negozioa" harrigarria iruditzen zaio, eta uste du sistema errazagoak garatu beharko litezkeela, eta kanpotarrek euskararekin loturarik izan ez dutenez, bertoko erdaldunek baina esfortzu handiagoa egin behar dutela kontuan hartzea akreditazio prozesuetan. Halaber, nabarmendu du Tolosaldean bizitzeak euskara egunero erabiltzea erraztu diola, eta bertako lagunek eta eskolako gurasoen laguntza sentitu duela.

Dualek sumatu du familiaren etxetik atera zenetik euskara erabiltzeko aukera gehiago sortu zaizkiola, eta horrek bere euskal herritar identitatea indartu duela. "Baina ni pribilegiatu bat naiz emakume ijitoen artean", onartu du. Gizarte patriarkal eta arrazista honetan, emakumea eta ijitoa izateak lepoan motxila astuna eramatea dakar. "Euskaraz ez baduzu hitz egiten edo ulertzen, beste harri bat sartzan duzu motxilan. Hori arazo bat da, ez dugu erraztasunik ikasteko", salatu du.

Nongoa zara?

Euskal Herrian euskaldun izateak zenbait ate ireki diela adierazi dute hirurek: hezkuntza eta lan munduan, arlo kulturean, sozialean eta politikoan. "Sudurra sartzeko bidea ematen dizu, baina euskara jakiteak ez du esan nahi hitza izango dugunik. Egoteko aukera bai, baina erabakitzea, tamalez, ez", dio Karimek. Izan ere, ondoren salatu du euskarak zabaltzen dituen ateak arrazakeriak ixten dituela.

Ez da erraza euskaldun sentitzea zure burua etengabe justifikatu behar duzunean, begiradak sentitzen dituzunean, paternalismoz pozoitutako komentarioei erantzun behar diezunean. Euskaldun zuriak harritu egiten dira pertsona arrazializatuek euskaraz egiten dutenean. "Zapiarekin ikusten naute, eta lehengo hitza erdaraz esaten didate. Euskaraz hitz egiten dudanean ere gaztelaniaz jarraitzen dute. Denbora behar dute estereotipoa apurtzeko. Zapidun emakumeak nola egingo du, bada, euskaraz? A ze meritua duzun! Agian pentsatzen dute ez dugula hizkuntzak ikasteko gaitasunik!", kontatu du Taranak. "Ze ondo hitz egiten duzun gaztelaniaz!", ere entzun behar izan du Leocadiak. "Nigan jarritako itxaropenak eta espektatibak baxuak izan dira. Ahalegin minimo bat egiten dudanean harritzen dira; batxilergoa egin nuenean ere harritu ziren! Horrek guztiak nire osasunean eta ongizatean eragina dauka".

"Nongoa zara?", galdetzen diote, bestalde, Palmirari, bere azala zuria ez delako. Ijitoa dela azaltzen badu, eta ijitoek Euskal Herrian 600 urte daramatzatela, "*No pareces gitana*" erantzuten diote. "Lore gisa hartu behar dut?". Are gehiago, ijito ez direnei egiten ez zaizkien galdera pertsonalak sarri egiten dizkiote, esaterako, ezkontzaren ingurukoak. Nekagarria da eta, ondorioz, txikitako lagunekin sentitzen da bakarrik guztiz erlaxatua. "Ni hemen jaio naiz zu bezala, euskara ikasi dut zu bezala, baina sentiarazten didate ez naizela hemengoa", dio. Hori bizi du Leocadiak ere: "Malagako gurasoak dituen euskaldun bati ez diote galdetzen nongoa den, eta ez dute zalantzan jarriko euskaldunak direla. Ni beti izango naiz kanpokoa, beti egongo da galdera hori". Taranaren seme-alabei ere, amarekin ikusten badituzte, galdetzen diete zenbat urte daramatzaten Euskal Herrian: "Hemen jaioak dira!". Integrazioaren kontzeptua problematikoa dela nabarmendu du: "Zeinek erabakitzen du ea integratua nagoen? Txuri batek? Ardura beti jartzen da migratzailearen gainean, baina denon artean elkarbizitza eraiki behar dugu".

Zapidun bat argazkian

Herri mugimenduek eta mugimendu feministek ere ardura dute askotariko emakumeen parte hartzea bermatze aldera. Aldiz, hizlarien sentipena da aniztasun kuota betetzeko edo argazkian aniztasun hori islatzeko bakarrik kontuan hartzen direla emakume arrazializatuak. Halaber, mugimendu feministak agenda aldatu behar duela aldarrikatu dute, egun emakume zuria baita agendaren erreferentziako subjektua: "Soldata bera lortzea da haien helburua; nirea, ordea, lehengusinak edo arrebak ikasketak eta lanpostua izatea da", dio Dualek. Taranaren kritika bat da politika publikoetan immigrazio sailak, eta ez berdintasun sailak, kudeatzen dituela emakume etorkinen beharrak: "Behin baino gehiagotan sentitu dut argazkirako zapidun bat nahi dutela. Erabakiak hartzeko ere han egon behar dut".

Emakume arrazializatuen parte hartzea sustatzeko orduan, euskara muga bat izan daitekeela uste dute. Esaterako, manifestazioen deialdiak euskara hutsean egiten badira. Karimen hitzetan, “euskara babestu eta zabaldu behar da, baina onartu behar dugu Feministaldian eta antzeko ekimenetan emakume askok informazioa ulertzen ez badute, ez direla hurbilduko. Feminismoa ezin da izan txurien mugimendua, eta gainerakoak, bakoitza bere aldetik”. Beste emakume musulman batzuk asanblada feminista batera joatera animatu direnean, esan diete ez direla eroso sentitu, eta ez dira inoiz itzuli: “Nitaz ere pixka bat kezkatuko direla sentitu behar dut; entzuteaz gain, nire arazoei nirekin konponbidea bilatuko dietela”.

Praktika antiarrazistak zabalduko dituen feminismo bat eskatu du Bueriberik: “Zer egin dezake feminismo hegemonikoak? Asistentzialismoa eta paternalismoa alboratu eta lege eta arau arrazisten kontra borrokatu. Zure pribilegioetatik abiatuta, laguntza eman: behar duen pertsona bat zure etxean errolatzea edo egoera administratiboak aldatzeko kontratuak egin. Eta espazio feministak bortitzak ez izatea. Heltzen gara espazio feminista horietara pentsatuz seguruak direla, eta han ere bortizkeriak aurkitzen ditugu”. Mugimendu feministan errotu den xurxurlarien estrategia (bolondres euskaldunek euskara ez dakitenei belarrira itzultzea) egokia iruditzen zaio hitzaldi formatuetarako, baina ez asanbladetarako: “Ezin zara aktibo izan, ezin duzu parte hartu abiadura berean”.

Euskalgintzari dagokionez, Dualek ijito herriaren historia ezagutzearen beharra nabarmendu du, eta erromaniaren eta euskararen fusiotik sortu zen erromintxela hizkuntza euskararen historiaren parte gisa aitortzea. Gainera, azpimarratu du ijitoek eta euskaldunek beren hizkuntzan hitz egiteko debekua dutela amankomunean. Eskoletan ere ijitoen jatorria, bandera edota hizkera ezagutzearen premia nabarmendu du: “Gaur egun ijito herria nola dagoen ulertzeko, lehengo jakin behar da zer pasa dugun”.

Txatean iruzkin eta galdera ugari piztu ditu hirugarren mahai-inguru honek. “Geure ziborrari begira denbora gehiegi ez ote dugu ematen euskaldun askok”. “Nola iritsi deus aldatzeko inolako saiakerarik egiten ari ez den gehiengo horrengana?”. “Parte hartzea bermatzeko aukera bakarra edo zubia, beraz, gaztelania da?” “Emakume txuri, euskal hiztun eta euskaraz egin nahi dugunok ere minorizatu izaten gara, baita mugimendu feministetan ere. Gu entzutea ere beharrezkoa da”. “Mila esker, barrenak mugitu zaizkidalarik noa”. Aurreko bi saioetako hizlariek esan bezala, gatazka beharrezkoa da aurrera egiteko eta zubiak eraikitzeko.

euskara eta feminismoa **bidelagun**

Hizkuntza, generoa eta beste menderakuntza batzuk

Azaroak 17, 10:00 - 11:30 mahai-ingurua



Tarana Karim



Palmira Dual Jiménez



Leocadia Bueriberi



Aurkezlea:
Amelia Barquín

Antolatzaileak



Hizkuntza eta Generoa batzardea